

# ARRASATE

## EXPRESS

Abendua

31

URTE BEI ON!

ARRASATE PRESS

duak 28, 132. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**Iñuxente  
iñuxente  
txakurrak  
buztana tente**

**iKER**

**BAINUGELA  
LILURAGARRIAK**

Udala Plaza z/g  
ARRASATE Tfnoa: 79 00 43

**G**

uk jakin badakigu euskal etxe jator eta garbietara horrelako gauzarik ez dela bidali behar, batez ere, pertsona helduak eta nagusiak daudenetara. Umeek bihotz-garbitasun, inuzentzia eta heldutasun gehiago izaten dute hone-lako gauzetarako, eta ez dute problemarik sortzen; baina nagusiak... ai ene! morauta jartzen dira.

Urtean zehar auto-zentsuratu egiten gara eta ez dugu horrelakorik argitaratzen. Baina gaur egun berezia denez, tori!



Edonola ere, hostotxo batzuk jarri ditugu leku estrategikoetan. Baina aldizkaria zuen etxera iristen denerako hostotxoak mugitu egin badira, ez da

gure errua, hori bidean edo inprentan kontuz ibili ez direlako da. Mesedez, putz egin eta jarri estalkiak behar diren lekuan. Eskerrik asko.

Joseba Vallés eta Jabier Ozaeta argazkilarik biktorea

# Arrasate Pentsuak

- **GEUS** pentsuen banatzailea Deba Garairako.
- Laguntzako abereentzat janari eta gainerakoak.
- Labore eta haziak.
- Lorazaintza, keramika, landareak.
- Fitosanitarioak.
- Txoriak eta arrainak.

Zarugalde, 19 - Otalora, z/g.  
ARRASATE Tfnoa: 77 06 67



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

## Publizitatea eta harpidetak:

Amaia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,  
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

## Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Urbarren, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Maria Agirre, Jon Etxebarria.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Espioiak Arrasaten

**E**zin nuen sinistu, baina txaskarri-  
rrioloa azaldu zidanak konfidan-  
tza osoa duenez gero, egiaztat  
eman behar izan nituen lehe-  
goan adiskide hark kontatutakoak.  
Behin baino gehiagotan idatzi dud  
bezalaxe, Arrasate herri aparta dugu  
eta, beraz, ezusteko guztietarako  
ateak zabalik egon daitezkeela  
pentsatu dut lerro hauek idazten hasi  
naizénean. Auskalo noraino ez garen  
iritsiko, daramagun bide honetatik  
jarraituz gero!

Joan den astean espioiak harrapatu  
omen dituzte Arrasaten, konkretukia-  
go IKERLANek dituen instalakuntze-  
tan. Dirudienez, ikerlandarrak aspal-  
ditik zebiltzan susmotan, zerbait  
arraroa gertatzen ari zela pentsatzen  
zutela. Eta, azkenik, susmoak erreali-  
tate bilakatu omen dira, izan ere bat  
ezezik zazpi espioi atzeman bait  
dituzte, ezkutuko lanean ari zirelarik.  
Inork ez daki nola erori diren, baina,  
zurrumurruek arabera, badirudi  
ertzainak jarritako tranpan jausi  
zirela, gaizkileak konturatu orduko.

Boris Iltsinen sikarioak ei dira  
harrapatutakoak. Errusiako tsar berria  
Aita Santuaren eskuari mun egiten ari  
zitzea une berberean izan ziren  
detenituak, bortizkeriarik gabe.  
"Izvinite Arrasate" (Barka, Arrasa-  
te) izan omen ziren herriko ertzain-  
buruaritzat atxilotuen artean buruzagi  
bezala zegienak esandako hitzak.  
Gero, "beltzen" ohizko begiratasuna

berri ere eredutzat ipiniz, arreta osoz  
kuartelera eraman zituzten, espieden-  
tea ireki eta epailearen eskuetan  
jartzeko.

Itxura denez, IKERLAN USAren  
inteligentziarako ikerketa batzuk  
egiten ari direlakoan zeuden espioi  
gizarajoak eta horien bila etorri ziren  
Arrasateraino, batipat ipar amerika-  
rren AWACS radar-sistema ezkutue-  
tan omen zeudelarik interesatuta.  
"Hay de todo en la viña del señor"  
erantzun omen zien ertzainburuak,  
errusiarrak huskeria horren atzetik ari  
zirela jakin zuenean. Iltsinen manda-  
tariak ez omen zioten ulertu, espioiak  
azkarrak, ez hain azkarrak eta buru-  
gogorak izan daitezkeela berriz ere  
frogatuta utzirik.

Ez dakit zer irudituko zaion  
irakurleari espioitzako istorio hau  
baina, ene iritziz, oso interesantetzat  
har genezake gure herrian garatzen  
ari den teknologiarako irrika atzerri-  
tarra. Dударik gabe, Maastrich-eko  
izpirituari jarraiki, Arrasateko herria  
europar defentsa eta seguritateko  
abangoardian ezezik mundu osoko  
militar indarrak bideratzeko ahalegi-  
netan azalduko zaigu laster batean.  
Dirudienez, NATOk zentru logistiko  
bat Olandixoko aldatzean era lezake-  
ela komentatzen da txikiteoko  
solasaldietan. Nork bere iritzia eman  
dezala.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



Gabon-jai eta Urte Berri On zorionsuak opa  
dizkizuegu arrasatear guztiei

Kirol bakoitza erantzun bat

ARRASATE KIROLAK. Kontzeziño kalea, 8  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30



**ARGI  
PLASTIC.  
C. B.  
PVC eta  
aluminiozko  
leihogintza  
Berria Arrasaten!  
Diseinu berriak!**

Axeri, 3 ARRASATE  
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

**ITSASKI  
arrandegia  
afraín freskoa  
eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa  
Arrasate 79 98 94



**URONDO  
elektrizitatea**

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11  
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

**Arrasate Press-eko pelmazuok!**

Maitasun guztiz, baina erran gura zenizadakezuen (jesus!) nizueke aspalditxo honetan logura handia ematen dostala astekariak. Rollotxu samarrak zaretela pentsaten jat; zuen aldizkarixe pixkatxo bat zozue iruditzen zait, eta betegarri dexente sartzen duzuela ere esango nuke. Ea espabilatzen zaretan pittin bat, bestela buzoiraino ere ez naz jaitisiko zuen semanarioaren bila, eta gainera salatu egingo zekidazuekete... egingo zaituztet (?) diru publikoaz txapuzatxoak eginez herritarroi adarrak jartzeagatik (ala "adarra jotzeagatik" esaten da?). Musuak, eta agur.

**Arrasate Press-ekoen erantzuna**

Aizu, faltau barik, e? Guk eskertzen dugu zuen iritzia jasotzea, baina batez ere onak direnean, eta ez kritikatzeko eta protestatzeko. Rollotxua zeu izango zara, entzun? Eta marimatraka galanta ere bai! Ez al dakizu inor iraindu gabe idazten, sorgin hori?

Gure aldizkaria zozue dela? Badakizu "zozoak beleari ipurbeltz" esan ziola, ezta? Eta seguraski, zuk ere

ez duzu ipurdia guk baino politagoa izango eta inori ezer esan aurretik... Tira, desbideratu gabe, gatozen harira.

1/ Logura ematea ez da gauza txarra, insomnia dutenek behintzat sarri eskertu izan digute. Gainera, kabreoa eta haserre sortzea baino hobe da, ezta?

2/ Batzuetan aldizkaria zozotxo baldin bada, ez da gure erruz eta kulpaz, entzun? Batzuetan herri hau berau izaten da zozo samarra: ez da ezer apartekorik gertatzen; oporretan, atsedenean edo greban dagoela ematen du. Bestela, begiratu "Mondra"ri azken aldi honetan. Eta normala! Inor ez da jaio beti heroearena egiten ibiltzeko, ezta?

3/ Betegarriak sartzen ditugula? Eta zer? Meritu gutxi duelakoan ala? Ez da batere erraza gauzak asmatzea, e? Ez da erraza ezer esan gabe bla, bla, bla... aritzea. Abilezia hori gutxik dute, eta gehienak politikan daude.


Mesedez, ea hurrengoan ganora eta pulamentu gehiagoz idazten duzun. Ez ezazu inor insultatu eta jokatu gizalege eta kortesia gehiagoz, ipurterre ziztrin hori! Judasen musu horiek bueltan doazkizu. Agur.



Hau serio doa: Ezkerrekoa, **Iñaki Mendiguren**, bere betiko lanbidera — ardiak zaintzera — doa, eta urte berriarekin batera, eskuinekoa, **Arantzazu Loidi**, etorriko da Arrasate Press-eko panpinak zaintzera.



**CRB**  
**Taberna**



**ESKU  
BERRIAK**


- GOSARIAK
- PINTXOAK
- GAU-KOPAK

**Garibai Etorbidea, 5**

*Orain  
Orain ere bai*

1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojigintzan katalogorik zabalena eskaintzeko

**Zubiaga**  
**Kaleberria, 18**  
**20.560 ONATI**  
**Tfnoa: 71 60 74**



*bitxítegia*

**Zubiaga**  
**Maalako Errabala, 5**  
**20.500 ARRASATE**  
**Tfnoa: 79 19 25**  
**Faxa: 79 14 89**

I  
R  
A  
T  
I

Ferrerias kalea  
Tfnoa: 79 71 80

*IZARAN*

**MARKO-JARTZEAK  
LAMINAK  
MARGOAK**

Biteri Etorb., 11 ARRASATE

**BEVERLY**

**KAFETEGIA**

Gipuzkoa Etorb., 9  
ARRASATE Tfnoa: 79 16 99

**UGARTE**

**Industri hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412

**KiDE**

**Paperdenda eta jostailudenda**

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77


**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

Durana, 12 ARETXABALETAKA

**FANCY**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



**PAZI-OLA** SA

**GALDARAGINTZAKO LANTEGIA**

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

# Zer eskatzen diozu datorren urteari?



**J. L. Etxeberria, "Porru"**  
(Udaltzainburua)

Zer eskatuko diot, ba? Atxabalpen argia jartzea eta agian entrenatzaile berria, zeren oraingoarekin.... Udaltzain bezala, aparkaleku berririk ez egitea, horrela multa-kopurua ez da gutxituko eta.



**Begoña Garai**  
(Irakaslea)

Urte berriari? Ohi baino opor luzeagoak ekartzea, azken aldian estresatuta bizi izan naiz eta. Jamaikara joango nintzateke gustora, baina ez bakarrik, e!, badakizu.



**Kristina Arriaran**  
(Dendaria)

Urte berriari nobedade ugari ekartzea eskatuko zioat, azken aldean asper-asper eginda bizi nauk eta. Ez duk uste? A! Eta urte loratsua izatea ere gustatuko litzaidakek.



**Jose Manuel Arriola**  
(Aguazil Jubilatua)

Erretiratu nintzenean egin zidaten omenaldia berriro egitea, hura ez zen aparteko gauza izan eta. Kontuan hartuta bizitza osoa herriari eskaini diodala omenaldi hobea egin beharko lidateke.




**A. Ibarluzea, "Txispas"**  
(Zine-gotzaia eta Zentruko elektrizista)

Jai gehiago. Orain tarte handia izaten da jai batetik bestera eta zerbait antolatzen ez nagoenean, ez dut jakiten zer egin. Jai berriren bat asmatu beharko dut, "Maritxu Kojoi" edo horrelakoren bat.



**Jone Astigarraga**  
(Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko arduraduna)

Arazorik ez izatea eta guztiok elkarrekin bakean bizitzea Gustatuko litzaidake. Zein polita izango litzatekeen mundu alai, pozgari, sentimenduz betea...



**NAROKI**

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

**ITURRIOTZ**

**TABERNA**

**GIRORIK JATORRENA !!**



Tfnoa: 79 16 04

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Jaiak pasa arte behintzat, ez zaitez gaixotu. Eta jaiak pasatu ondoren, urtarileko traumatik gehien beharko duzuna Buru-Osasunerako Zentrua izango da: ..... 79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Aurrerantzean Gurutze Urdina izango da, gorriak krisian bait daude, mailuak eta igitaiak batez ere ..... 76 55 76

### DYA (Y NOCHE)

Antzuolan ..... 76 62 91

### ANBULATORIOAK

Ikus Eritetxei buruzko oharra. Jaien ostean, labatibak eta hartzeko, deitu 79 13 57ra (Larrialdia)

### ANBULANTZIAK

Hobe zeure kotxean joatea.

### UDALTZAINGOA

Jaiak ospatzen, mundu guztiak bezala.

### ERTZAINZAK

Herritik aldegin dute, ezin zutelako arrasatearrekin burutu.

### SUHILTZAILAK

Nahi baduzu, deitu Zubillagako (78 28 00), baina hobe duzu zeuk baldeka sua izaltzen hasi.

### MATXURAK

Bestela ere korrika ez zaizkizu etorriko deitutakoan, eta egun hauetan gutxiago. Beraz, hobe duzu ezer ez matxuratzea.

### GARRAIOAK

Aferrik duzu deitzea, greba egingo omen dute eta. Beraz, hor konpon Mari Anton! Baina badaezpada ere  
Taxiak ..... 79 12 22  
P.E.S.A ..... 79 14 19

### LAUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUA


Hilerria ..... 79 71 69

### KONTSUMITZAILEAREN ZENTRUA

Hainbestetan ziria sartu eta ez bazara espabilatu, ez duzu erre mediorik. Hobe ez deitzea Kontsumitzaileen Bulegora ..... 79 51 55

### MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Telefonoa 77 01 05 da, baina handik liburuak hartu ordez, hobe denda erostea. Bestela, nola arraiobiziko gara idazleok eta "tantos que vivimos del cuento"?



28

## Larunbata eta zapatua

• • •

- Zinea: Jai-Alai: "Kapitan True-no en la Herriko Taberna" (betiko orduan)
- Goardiako farmaziak: Egunez: Iritzar (oporretan) Gaeuz: Kamatxo (lo)

29

## Igandea eta domeka

• • •

- Zinea: Jai-Alai: "Axterix eta Obelix en el Batzoki" (pixka bat beranduago)
- Bideo-emanaldia umeentzat: *Europar jolas egiteko arauak.*
- Kontzertua: Goikobalukoek Behekobalukoekin, "Los Pitxonzitos" en laguntzaz.

## Kiro Agenda

### Kanikak

• • •

- Zaldibar ondoko parkean, larunbatean arratsaldeko 4etatik aurrera, kanika-txapelketa. 25 urtetik gorakoentzat.

- Goardiako farmaziak Egunez: Amezua (utzi bakean!) Gaeuz: Maripuy (zoazte pikutara!)

30

## Astelehena (jodeee!)

• • •

- Zinea: Jai-Alai: "Tintin en el Elkartoki" (lehentxeago)
- Hitzaldia: Kargu-eskaladari buruz Trepa jaunak emana.
- Goardiako farmaziak: Egunez: Aurora Real (aspirinak bakarrik) Gaeuz: Moralidades (tiritak bakarrik)

31

## Asteartea eta martitzena

• • •

- Zinea: Jai-Alai: "El Ilanero solitario en el Ezkertoki" (oso berandu)
- Goardiako farmaziak: denak itxita.

- Hitzaldia: *Umeei ipurdia bero-bero egiteko teknika* (tratu txarreatik salatua izateko arriskurik gabe).

32

## Asteazkena eta eguastena

• • •

- Zinea: Jai-Alai: "Los hermanos Marx en la Casa del Pueblo" (beti)
- Hitzaldia: Egongo da seguraski, baina ez dugu informazioirik.
- Goardiako farmaziak: denak zabalik, baina bikarbonatorik ez dute.

33

## Osteguna eta eguena

• • •

- Emazteek Jipoituriko Senarren Elkartearen eratu da Teila-peko Txokoa.
- SS-77ren kontzertua Jon Artzamendiren zuzendaritzapean

## Esgrima

• • •

- Bihar, igandea, goizeko 10etan hasita Musakolako kiroldegian esgrima-erakustaldia. Ez arrimatu gehiegi.

## Saskibaloia

• • •

- Atxabalpeko futbol-zelaian, emakumezkoen Centraljet Euskal Air-ek Lanas Stop taldearen aurka jokatu du, Musakolako kiroldegia gizonzkoen taldeak okupatu du eta.



## Deialdiak

### • Exekuzio publikorako deialdia

Datorren igandean, hilak 29, eguerdiko 12etan, herriko plaza nagusiaren erdi-erdian burutuko den exekuzio publikora dei egingo zaizue guztioi. Zigor arin eta txiki hori ongi baino hobeto merezia duena Gabonetako loteria Arrasaten saldutako 54392 zenbakiari egokituko zitzaioela esan zuen bidente itsua da. Udal-agintari guztien aurrean eta ziria irentsi genuen guztion txalo artean, lehenik tortura-saio errefinatua aplikatuko zaio, gero beste edozer gauza eta azkenik lepezintzurra bihurrituko, hurrengoan zenbakiak hobeto ikus ditzan. Txotxoloa halakoa!

## Hitzaldiak

### • Euskadi prest jarriko dugu

Datorren igandean, goizeko seietan, *Euskadi prest jarriko dugun* painaren antolatzaileak izango dira Arrasaten hitzaldi bat ematen. Hain zuzen ere, dirua Euskadi prest jartzen gastatu ordez, bide-bazterretan slogan horrekin kartelak jartzen zergatik gastatzen duten azalduko dute, gauza ulergaitza bait da benetan. Dirudienek, ez da egia mugimendua ibiliz erakusten dela.

### • Gluglupuff museoak Arrasaten

Herriko kultur dinamizatzaile dinamikoak (alias "Johnny el guapok") bere ahots sexy eta begirada gautibagarriaz argi eta garbi esplikatu du datorren asteazkenean, urtarrilaren 1-ean, zernolako abantaila miresgarriak ekarriko dizkigun Bilbon 2 pezetaren truke zabalduko den Gluglupuff museoak. Antza denez, Bilbora doazenak aurrez Arrasatetik pasatzea dago aurrikusia, hain sendoa dugun ardo-kultura



## Adio 91-Kaixo 92

### Musakolako kiroldegian jaialdia

Urteari agurra emateko Musakolako Kiroldegian kotilloiak egin izan dira, baina azken aldean ez. 1992a urte berezia izango denez, aurrean Musakolako Kiroldegian izugarritzko jaia antolatu da, afari eta guzti. Afaria ezezik, artista ugariaren ekitaldiak entzun eta ikusteko aukera izango da. Jaia Eburne Balanzategik aurkeztuko du, eta besteak beste han izango dira, Jabi Tramon Strep-Tease eginez, Iñaki Txintxurreta play-back-en bat eskaintzeko, Doctor Moreano eta bere ATSak musika-taldea, Montte tabernako zerbitzaria txiste kontatzen.... Horretaz gain, aipagarria da ATBK jaialdia grabatu eta bertan pantaila erraldoia ere jarriko duela, jaia beste modu batera bizi nahi dutenentzat, noski. Sarrerak bi preziotan jarri dira: afaltzera joaten direnentzat, 5.000 PTA, gainontzekoak 1.000 PTA. Sarrerak Navas de Tolosa kaleko 22. zenbakiko hirugarren pisuan eskura daitezke.

autoktonoaren azken emaitzak dastatzeko.

### • Gehiegikerien erre-medioa

Tripa-barrenari helduta, aieneka eta damututa, hasperenka baldin bagaude Gabonetako gehiegikerien ondorioz, adi, aukera paregabea dugu eta! Enpatxua, idorria edo behe-rakoa nola osatu eta sendatu litekeen agertuko dute gure kolaboratzaile maitagarri diren Eukeni eta Arantxa jakintsuek. Lehenik bronka galanta jasan beharko dugu entzuleok, eta gero aholku zuhurrak urte-amaieran berriro txotxolokeria berbera egin ez dezagun. Monterronen, bihar-mun iluntzean.

## Ikastaroak

### • Gauza ulergaitzen deszifratetarako klaseak

Herritarrok arazo handiak ditugunez Katxatxistango hizkuntza ulertzeko, baita medikuen letra, diplomatikoen hizkuntza (bereziki Vatikanoko diplomaziarena), politikoen makiabelismoa, gobernuen estatistikak, alderdiek hauteskunde-biharamunetan egiten dituzten balorazioak, Kuwaiteko gerraren zentzua, etab. etab. Ahizke-Cim-ek ikastaro bereziak antolatu ditu urte berrirako, aipaturiko gai guzti horietan nolabaiteko trebetasuna lortzeko. Ez zaio inori arrakasta garantizatzen.

### • Musakultura garatzeko ikastaroak

Ikusirik arrasatearrok geroz eta itsusiagoak garela eta gure itxura fisikoa ere pixka bat europartzeko helburuz, Arrasateko Yupi Yogi-Elkarteak ikastaroak antolatu ditu gizonezkoen tri-pontziak hustu eta emakumezkoen ipurtontorrak berdintzeko. Kasu askok erremediorik ez dutenez, amets eta ilusio faltsurik ez egitea erregutzen da.

## Besterik

### • Elizama Santua(?)ren oharra

Ikusirik egunotan eliza guztiak gainezka daudela, fededun zintzoek esertzeko ere aukerarik izaten ez dutelarik, Elizama Santua(?) erregutzen du fedearen beroaldi sutsu hauek hobeto banatzeko urtean zehar. Kontua da behingoz oreka lortzea; izan ere, urte osoan zehar nahikoa leku eta gehiago egoten omen da libre. Zer demontre gero! Bartzuetan gehiegi, eta besteetan gutxiegi.

### • Inaguraketa

Gurasoek, borondate onez agian, baina zeharo izorratzen eta hondatzen dituzten seme-alabei eraikiko zaie monumentu bat Sebero Altuben. Guraso-Elkarteek ez dute ekintza oso begi onez ikusi, baina badirudi bidezkoa dela behin behintzat honelako aitortpena egitea hain ugari diren gaztetxo koitadu horiei.

### • Omenaldia

XYZ enpresaren sortzaile eta zuzendaria hilberria dela eta, eskerronezko omenaldi bihizkorra egiteko asmoa dago. Omenaldia haren enpresako langileei egingo zaie, noski, goian hain buruzagi inutilla izan arren, gauza izan direlako zerbait egiteko.

“.....  
Arrasate Kooperatiba-Taldeak egin berri duen Kongresuan zera irakurri genuen Biblian (Eklestasiatiko 30, 14-17an):

“Hobe osasuntsu eta sendo dagoen pobrea makal dabilen aberatsa baino.  
Hobe osasuna eta sasoi munduko urre guztia baino, hobe gorputz indartsua ondasun ugariak baino.  
Ez dago gorputzeko osasuna baino aberastasun hoherik, ezta bihotzeko poza baino zorion handiagorik ere.  
Hobe heriotza bizimodu latza baino...”

Eta honetan oinarrituko da gure estrategia kooperatiboa datozen urteotan. Kinka larrian dagoela ekonomia, Europara goazela eta konpetibitate eta konpetibitatea besterik ez da entzuten. Baina utikan, gu ez goaz hortik. Hankamotz zaudenean, hobe bi hankadunekin lasterka ez hastea. Zergatik konpetitu japoniar, aleman edo amerikanoekin? Hor konpon beroriek! Bizitza osoa estresatuta, kabreatuta, osasuna galtzen ibiltzeko? Erdiak bihotzekoak emanda gaude, beste erdiak goiko ganbaratik jota... beti gure aurretik doazenak harrapatu ezinda. Eta dena, zertarako? Automobil garestiagoa erosteko! Eta gero, kriston istripuak. Ba, ez! Agian pobreagoak izango gara, ez dugu automobilik erosteko dirurik izango, baina hobe! Oinez eta bizikletan ibiliko gara, lasai asko. Kooperatibetan bizikletak egingo ditugu. Horretarako egun erdiz lan egitea nahikoa izango da. Beste egun erdia Urkultik paseatzen edo Albiñako urtegian igerian, seme-alabekin jolasean, kulturgintzan eta lagunarteko egonaldi atseginetan emango dugu. Zer arraio! Garbi asko agertzen da Liburu Santuan”.

(Jesus Mari Mongelos de Ormaetxea.  
T.U. LANKIDE: 1991-XII-28)

Zer egingo duzu alkatetza zure esku suertatzen denean?



Arrasateko Hiri Txit Zintzo eta Leialaren gobernu nire esku suertatzen denean, batetik, ospitale bat eraikiko dut, teknologiarik aurreratuenaz hornitua, eta bestetik, anfiteatro bat Santa Barbaran ekintza kultural, erlijioso, ludiko eta gainerakoak praktikatzeko. Honela, langabezia murriztuko dugu, badago nahikoa eta. Obra hauek egiteko lehiaketa antolatu eta artista izendatu beharko da.

Fatxadak pintatzeko, bakoitzak nahi dituen irudi eta koloreak erabili ahal izango ditu, baina hasitakoa bukatzekotan, e?

Zirkulazioa libre izango da ibilgailuaren jabeak nahi dezan orduetan eta kaleetan, horretarako du berea berebela eta. Aparkatu ere gogoak emango dion lekuan egingo du, baina giltzak utz ditzala kotxean, karabanarik sor ez dezan, mugitu beharra suertatzen bada ere.

Denda eta Tabernak jabeek nahi dezatenean itxiko dira, horretarako dira jabeak eta. Baina aldi berean, gehiegikeria etilikoen ondorioak (botatako txahalak, etab.) jabe horiek beroriek jaso eta garbitu beharko dituzte.

Txakur-gorotzak ere txakurren jabeek jaso eta gordeko dituzte, horretarako daukate lagun zintzoa eta. Zaborrak ere bakoitzak bere etxean gorde ditzala ekainaren 23ra arte, eta orduan San Juan Sua egiteko erabili.

Lastima leku gehiago ez izatea!

ROSA OTADUY,  
HURRENGO ALKATESA (AGIAN!)

# OIHANA LORATEGIA


Arrasate Pasealekua, 8 ARRASATE Tfnoa: 77 14 56

comercial  
san juan

Garibai, 12 Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



# ERROTA-GAIN Aluminioak

Aluminiozko leihoak (haustura termikoa) eta PVC

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41



## GRETEL GAZTE-MODA URTE BERRI ON!

Otalora Lizentziatua, 5 ARRASATE Tfnoa: 77 00 81

# fasprint

## Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2

**ARRASATE**

Tfnoa: 77 06 11

Faxa: 77 09 86

## BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kiroleterako aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas, 34 GASTEIZ

# EDERRA

## TABERNA

Iturriotz, 12

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 96 25




# HIRU

## UTILAJEAK

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldispe kalea, 10 (95. postakutxa)  
ARRASATE Telefaxa: 79 80 97  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Goian Industrialdea (24. postakutxa)  
01170 LEGUTIO Telefaxa: 45 54 74  
Tfnoak: (945) 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53



# Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



KOMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE



Kamilla pasatzeko beste zabalera izango du zubiak.

## Ospitaletik hilerrira zubia

### *Ospitalean hiltzen direnak zuzenean eramateko*

Denok dakigunez, orain arte Eskualdeko Ospitalean hiltzen ziren guztiak, zuzenean Hilerrira eramaten zizuten, baina ez kotxe funebrean, baizik eta kamillan ipintzen zuten hildakoa izara batez estalita eta horrela, kamilerok eta lurperatzaileak kalerik kale hilerriraino, eramaten zuten hildakoa. Hilerriko kapilan gau osoa pasatu ondoren, hurrengo egunean gorpua lurperatu egiten zuten.

Egoera hau aldatzea komenigarria izango litzatekeela eta zubi bat egitea

erabaki dute Osakidetzakoek. Kexa asko jaso dute Eskualde-Ospitalekoek eta, horren ondorioz, zubia egitearekin arazoa konpontzea pentsatu dute.

Datorren urtean egiten hasiko diren zubia Eskualde-Ospitaletik Hilerriraino zuzen joango da. Horrela behintzat, jende guztiak ikusteko moduan hildakoa kaletik zehar eraman beharrean, zubitik eramango dute; horrela inork ez du ikusiko, zubiaren neurria kamilla eta kamilleroa pasatzeko bestekoa bakarrik izango bait da.

#### Ertzaintzak herritik alde

Arrasate herriko biztanleak zintzoegiak garelako, Ertzaintzak ez omen dauka lanik, ez trafikoa zuzentzen ezta trafikatzailerekin ere, herri honetan ez bait dago horrelakorik. Beste eratako gaizkilerik ez dagoenez, abenduaren 28an herritik alde egitea erabaki zuten gaiztoak dauden herriren batera.

#### AEDn 92 urterako plangintza

Abenduaren 27an AEDk urte berri-rako plangintza egin du eta bi puntutan oinarritua dago plangintza osoa. Alde batetik, kalean gero eta euskara gutxiago entzuten denez, eta ondorengo urtetan euskara entzun nahi badugu, ondorengoek mantendu beharko dutenez, euskalduntxoak sortu behar omen ditugu. Bestetik, erakundeak diru-iturriak itxi dituztenez, Arrasate Press eta Arrasate Telebista euskaraz eta erderaz egitea pentsatu dute errentagarriagoak izateko, horrela publizitate gehiago sartuko bait da.

#### Mendekuz eskaparatea apurtuta

Santamasetan Arrasateko hainbat dendak eskaparate-lehiaketan parte hartu zuten. Lehiaketa egin ondoren eta handik ordu batera, irabazlea nor zen jakina zenean, irabazlearen eskaparatea jota apurtuta agertu zen. Oraindik jakin ez arren nor izan zen eskaparatea apurtu zuena, inguruko eta bere konpetentziako dendaren bateko jabea izan den susmoak daude.

# LANDALUZE

✦ URDAIAZPIKOAK ✦

ITURRIOTZ KALEA. 7 ✦ TFNOA. 79 14 86

\* ARRASATE \*

**Zorrotxoen aurka**

Famili Moralaren Aldeko Elkarte-koek ez dute begi onez ikusi "txapel" ari buruzko kanpaina (zorioneko *jartzazu-jarriozu* hura) eta, jakin dugunez, gommatxoak boikoteatzen hasi dira: kasu batzuetan pika-pika hautsa bota omen diete barruan, eta beste batzuei orratzez zuloak egin dizkiete muturrean. Kon-tuz, beraz! Abisatuta zaudete.

**Txinoak Ulkulun**

Auleko astean, Ekialde Ulunetik txino batzuk etoli zilen Otalola Jaulegiko *Ikasbide* bisitatzea eta, jakin dugunez, Ulkulu oso polita dela eta Zain Dezagun Ulkulu esan zioten Josemalili. Komentarioak ez omen zion Josemalili balebegalik eman.

**Hortz berriaren alde**

Gure lankide Beñardo Kortabarriari, konfiteak jaten hortza apurtu zitzaion eta hortza konpontzeko dirurik ez duenez, tabernetan dirua batzeko kaxa bat ipintzea pentsatu da. Kaxan *Beñardoren hortzaren alde* idatziko da; beraz, lagundu nahi duten guztiek, badakite, taberna gehienetan izango dute aukera.

**ONGIETORRIA JAIOBERRIEI**

Panorama ikusita, aste honetan inork ez du jaiotze nahi izan, 1992ra arte itxaronez gero, BEZ edo IVA gutxiago ordaindu beharko bait dute.

**DOLUINAK EZKONBERRIEI**

Gizakia omen da zulo berean hanka birritan sartzen duen abere bakarra.

**Iñaki Mendiguren**  
**itzulpen-zerbitzua**  
Gabonak direla eta, Errege Eguna aurretik bidaltzen dizkidazuen lan guztiak dohainik egingo ditut. Gabon Izpiritua deitzen zaio honi.

# Txandaka

## 14 URTEKO GAZTETXO BATEN ASMO ONAK URTE BERRIRAKO

**E**z dut granorik leherthu edo espini-larik aterako.

• Ez dut arrebak gogaiteraziko nobixoarekin dagoenean.

• Bizikletaz noanean, ez dut abiada bizkortuko zebra bidetik pasatzen ari diren agure eta atsotxoak beldurtzeko.

• Ez dut astero neure txilibitua neurtuko, zenbat hazten den ikusteko.

• Ez dizkiot amonari betaurrekoak ezkutatu, *kulebroi*-ren bat ikusi nahi duenean.

• 5 minutu behintzat agoantatuko dut, aitona gerrako kontuekin hasten denean.

• Ez dut atzamarririk sudurrean sartuko, gero aulki azpira eramateko.

• Ez diot aitari komentario amorragarri egingo, Errealak galtzen duenean.

• Ez ditut ostikoz joko, kalean kaka egiten harrapatzen ditudan txakurrak.

• Aspertuta nagoenean, ez naiz hasiko neure zera horiekin jolasean.

• Ikastolan ez diot andereño Marijoxepari *Potola* deituko.

• Ikasgelan dugun argazkian ez diot Lehendakariari biboterik pintatuko.



Jose txo Zintzoberri (\*)

• Ez dut bizarra hazi erazteko lozio inozo horietakorik erosiko.

• Jainkoak nahi duen bezala, saiatuko naiz ez neska bat bakarra, baizik eta denak maitatzen.

• Etxean bakarrik nagoela, izeba Eustasia etortzen bada, ahalegin-duko naiz atea zabaltzen.

• Ez dut sugandilarik

klasera eramango.

• Probatu behintzat egingo ditut amak prestatzen dituen porru-patat.

• Ez dut CIMen larrialditarako atea zabaldu eta alarma jo eraziko, Juanita haserretu egiten delako.

• Osaba Prontxiorengana Aramaixora joatean, ez diot astoari buztanpean ezer egingo.

• Ez dut zigarrokinik erreko, ezta lagunei eskatutako zigarro osorik ere.

• Diskoak beren azaletan sartuko ditut. Aldi berean, ez dut zorurik pipa-azalez estaliko, eta ez naiz neure azalaz obsesionatuko.

• Futboleant, saiatuko naiz baloia atera botatzen eta ez *Potolaren* irakasgelara.

• Ez dut gehiago matematiketako formularik borragoman idatziko.

(\*) GAZTETXO BIZARGABEA



**JAI ZORIONTSUAK!**

**MURUAMENDIARRAZ**

**g o z o t e g i a**

Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 15 34



Xabier Zubizarreta eta Nekane Iglesias, goxo-goxo elkarren ondoan eserita

## Alkatetza-arazoak konponduta

### X. Zubizarreta eta N. Iglesias-en harreman emankorra

Komunikabide jakin batzuetan azken aldean atera diren berri interesatuek irakurleei besterik pentsarazi nahi izan badiete ere, Nekane Iglesias eta Xabier Zubizarretaren arteko harremanak ez dira pentsa zitekeen bezain txarrak. Argazkiak ondo adierazten duen bezala, Arrasateko HB eta PSOeko buruek elkarren artean duten harreman ezin hobea da.

Xabier Zubizarreta eta Nekane Iglesiasen arteko adiskidetasuna ez da atzoko kontua, aspaldikoa baizik, hauteskunde-kanpainan sortutakoa hain zuzen ere. Harrez gero, biak askotan izaten dira elkarrekin. Izan ere, bai batzuk eta bai besteak, oso ondo dakite Arrasaten elkarren ondoan bizi diren kontzientzia desberdin ugari daudela. Errealitate horretatik abiatuta, sarritan bildu dira biak; ezkutuan, noski, komunikabideoi pistarik ez emateko. Behin

baino gehiagotan egindako bilkura horietatik, herriko arazoak konpontzeko akordioez aparte, adiskidetasun polit bat sortu da. Poetek eta *La dama de rosa* kulebroiaren ikusleek, "lagunak baino zerbait gehiago" direla esango lukete seguruenik.

Izan ere, joan den larunbatean bikote alai Arrasateko parke batean zegoela, gure argazkilaria bertan egokitu zen eta, profesionaltasuna medio, disimulu handiz, orain artean esandako guztia baieztatzen duen argazkia ateratzea lortu zuen. Argazkia ikusi eta edonor kontura daiteke Xabier Zubizarreta eta Nekane Iglesias ondo baino hobeto konpontzen direla eta beraien artean dagoen harremana pozgarria dela, edozein senar-emazteren artean bezala. A! ahaleginak ahalegin, ez dugu lortu jakiterik norena den bien artean zaintzen duten umetxoak.

## Usteak uste

**"Inuxente potente, txakurrak buztana tente"** esaten genuen mutikotan; **"Inuxente, inuxente, txakurrak buztana tente"** ni baino gaztetxoagoek; **"Inuxente babalora, txakurren buztana jira eta gora"** esaten omen zuten helduagoek. Lelo horiek gaurko egunari dagozkio, Inuxente egunari. Normala da urtean zehar inuxentetzat jotzen ditugunei kategoria desberdinak ematea: **Inuxente potentea, Inuxente inuxentea**, oso tipo inuxentea den moduan, ikaragarrizko inuxentea izango litzateke; **Inuxente babalorea**, berriz, zeharo azkarra ez dena. Ohituraren aginduz, abenduaren 28an guztiok izaten dugu **Inuxente potente, Inuxente inuxente** edo **Inuxente babalora** izateko arriskua.

Zergatik hain egun seinalatuan txakurrak nahastu gizakion gorabeheretan? Are gehiago, zergatik txakurren buztana? Eta oraindik urrunago, zergatik **tente** edo **jira eta gora** egon behar du txakurren buztanak? Nik dakidala, txakurra, **gizakiaren lagunik onena** ez dezagun ahaztu, zerbaitetan harrapatuz gero, ez da buztan tente edo buztan gora azalduko; bai, ordea, buztana hanka tartean duela. Behar bada, horregatik izango dira bata bestearen lagun, hanka tarteko buztanagatik. Hala ere, ezin ahaztu gizonari hanka tartekoa tentetzen zaionean, zail zaiola **Inuxente** deitzea; ez du, behintzat, itxurarik izaten.

BEÑARDO ANTZUOLA-ERREGE


Galeria arte  
aldos

URTE BERRI ON!

Iturriotz, 24 ARRASATE Tfnoa: 79 57 84

# Sari paregabeak!


Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egingo den zozketan parte hartuz.



Kanaria  
urletara bi  
lagunentzako  
bidaia.



Renault Clio 1.1 CL (F. F.)




Iturriotz kalea, 8 ARRASATE  
Tfnoa: 77 04 01



*Erikite* S.L.  
SOINUA · BIDEOA · TB · KOMUNIKAZIOA


Otalora, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE  
Tfnoa: 79 19 25



# Fototrunkoa



Patxi Goikolea zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako irabazlea:  
**PILAR LARRAÑAGA**

Argazkikoa nor den esanez, bidali beheko txartela ARRASATE PRESSera (Azoka kalea, 1) eta aste honetan TRIKITI etxeak emango duen opariaren zozketan sartuko zara.

## ERANTZUNA

**Nor da aste honetako pertsonaia?**


Izena: .....

Abizena: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Tfnoa: .....



Kataide Poligonoa. ARRASATE  
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE  
Tfnoa: 79 92 76



**J. Markiegi**  
**JANTZIDENDA**

Olarte, 2 ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 32

# OBJEZIO BULEGOA



▪ **INFOMAZIOA :**

- OBJEZIOA
- INTSUMISIOA
- POST-MILI
- EMAKUMEEN OBJEZIOA

▪ **TRAMITAZIOAK**

▪ **AHOLKULARITZA**

Informazio-zerbitzua: astelehen eta asteazkenetan 5.30etatik 7etara. Tfnoa: 77 00 65 Garibai Etxean

## Goiztisi opariak

Maalako Errabala, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 87 43

### ONANDIA



Gozotegia  
Dastalekua

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 12 31



Izen  
**PROPIOAK**

● **Kasi-ano Frances**, 42 urteko arrasatearra, orain arte inguruko putetxe guztietako kamareroa izandakoa. Gaur egun, Arrasaten zabaldu berri den putetxe berriko nagusia.

● **Federiko Gozogarrik**, 31 urtekoa eta Arrasaten jaioa, erreposteri ikasketak bukatu ditu orain dela gutxi, eta txurrero izateko oposaketak egin ondoren, Udalak Sebero Altuben ipiniko duen txurdo-postuko plaza finkoa bereganatu du.

● **Miren Jalgiro**, 21 urteko arrasatear honek, psikologi ikasketak ditu eginak. Lehengo kultur dinamizatzaileak lanpostua utzi duenez, berriro ere oposaketak egin dira eta Mirenek lortu du plaza. Zorionak!

Azken Gobernu-Batzordean aho batez onartu zenez, hemendik aurrera, kalean ibiltzen diren txikiteroei eta gaizki dabiltzan gainerakoei **alkoholemia-kontrolak** egingo dizkiete udaltzainek. Kontrol hauek ez dira izango orain arte ertzainak egiten zituen bezalakoak, txisaren analisia egiterakoan aurkituriko den alkohol-kopuruaren arabera egingo dira eta. Isunak ikaragarriak izango dira, beraz kontuz mozkorrak harrapatzearekin.



Gay argazkia



Lesbos argazkia

◀ Azkenean, posible izango da **bi mutil elkarren artean edo bi neska elkarren artean ezkontzea**. Pasa den ostiralean, Aretxabaletako Udaletxean, argazkian ikus daitekeen moduan, Jon Lopez eta Gorka Bengoetxea eguerdiko 12etan ezkondu ziren, eta ondoren, Mertxe Zorrozuak eta Bego Urozek elkarrekin bizitzeko papera sinatu zuten.



**KILI-KOLO**

Ferrerias, 21 ARRASATE  
Tfnoa. 797006




**GARAGORRI**

Iturriotz, 29  
Tfnoa: 79 16 98  
ARRASATE


Bidekurutzeta, 13  
Tfnoa: 76 13 73  
BERGARA



**Euskadiko Ezkerran** izan den zatiketaren ondoren, Añamendi taldeak Eusko Alkartasunara jotzen duela uste du jende gehienak, baina Arrasateko kasuan badirudi EAJtik gertuago dagoela EAtik baino.



**Holandako Maästrich**-en izan den Europako estatu-buruen bileraren ondorioz, baseritarrek grebari ekin diote, bertan erabakitako esnearen salneurriak direla eta "mala letxie" sartu zaialako. Horretarako behien titi-puntak silikonaz itxi dituzte, behiek esnerik eman ez dezaten.



**IKERLANek errobot bat asmatu** berri du etxeko lan guztiak egiteko, baina ez da merkatuan salgai ipiniko. Emakumeek halako laguntza baldin badute, gizonezkoak beldur dira eguna zertan pasatuko ote duten andreek, eta, beraz, robota komertzializatu eta merkaturatzea debekatu dute.



Parques  
Y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



**D**ivina Orgullo, Pampan jaio zen eta 42 urteko emakumea da, nahiz eta askoz gazteagoa eman. Bere bizibidea "kartak botatzea", hau da, karten bidez etorkizuna iragartzea da. Enperadore, Herensugea, Infante, Deabruaren irudien bidez errealitatea interpretatzen du, 1992 urteko errealitatea kasu honetan. Pasa den astean Monterronen ikastaro bat ematera etorri zen, Yoga elkarteko Hazaldi taldeak ekarrita.

— Nola hasi zinen lanbide honetan?

— Nire herrian azti bat zegoen eta nik hamabi urte nituenerako konturatuta nengoen beste inork igartzen ez zituen gauzak igartzen nituela. Pentsatu nuen herriko azti horrekin ikasten hastea, eta berari proposatu ondoren, baietza eman zidan. Horrela hasi nintzen ikasten eta lanbide honetan sartzen.

— Ditzuzun urteak baino askoz ere gazteagoa ematen duzu; gaztetasuna mantentzeko formularen bat aurkitu duzu?

— Batzuek kremak erabiltzen dituzte azala leun mantentzeko; nik, berriz, edabe batzuk prestatzen ditut eta, horietxek hartuz, azala gazte edukitzeaz gain, izpiritua ere gazte mantentzen dut. Dena dela, ez da ahaztu behar *Famos* krema, egunero eskukada bat ematen bait dut. Honek ere laguntzen dit azala fin mantentzen.

— Datorren urtean Arrasaten izango den egoera hainbat arlotan aztertu duzula esan digute; kontaguzu zer ikusi duzun kartetan.

— Bai, aztertu dut, eta, egia esan, ez diot arlo asko-

Divina Orgullo

## Zer datorkio Arrasateri 92an?



tan oso etorkizun ona ikusten Arrasateri.

Politika-arloan, ezusteko galantak izango dira; alde batetik, gaur egun Arrasateko alderdi batzuetako politikoak alderdiz aldatuko dira. Bestalde, alderdi politiko berria sortuko da eta herri mailakoa izango da, baliteke gainera, kooperatiba-mundutik sortzea.

Ekonomi arloan, berriz, munduan ospe handia duen eta Arrasaten dagoen enpre-

sa bat, galera-prozesuan sartuko da eta egoera horri buelta emateko, blokeatuta dauden herriei, hau da, Kuba eta Iraki, bere produktuak askoz merkeago saldu beharko dizkio. Bestalde, herriko enpresa txiki batzuek aurrerapausu handiak emango dituzte.

Kulturan, Jon Iñaki Lasak nobela bat idatziko du eta liburu horrekin orainarte euskaldun idazle batek jaso duen saririk onena eskuratuko du.

Kiroletan, Txikito de Benares pelotaria profesional-tan jokatzeko hasiko da eta badirudi izugarriko partiduak egingo dituela; horregatik, pelota-txapelketako finalera heltzea ere gerta liteke.

— "Arrasate Komunikabideak" (Arko) sortu berri den elkarteari, zein etorkizun ikusten diozu?


— Telebista eta aldizkari bat diruz beteta ikusi ditut kartetan, baina ez nekien zer esan nahi zuen, ez bait nekien Arrasaten herri-telebista eta herri-aldizkaria zeudenik. Dena dela, orain ulertzen dut eta interpretatu dezaket. Etorkizun oso ona ikusten diot Arko-ri; badirudi erakunduek nahi beste diru emango diotela bere proiektua aurrera eramateko, herri-rako horrelako infrastruktura derrigorrezkoa dela ikusi dute eta.


— Orain dela egun batzuk, Madrileko Federico Lenguadok, bere bolan zenbaki bat ikusi zuen eta loterian tokatuko zen zenbakia hori izango zela pentsatu zuen; arrasatear askok erosi zuten zenbaki hori diru-apur bat irabazteko asmoz. Zer deritzozu konfunditzaeri? Askotan gertatzen dira horrelako gauzak?


— Ez, ondo ikusten dugu, baina gero interpretatzeko orduan, batzuetan hanka sartzen dugu. Dena dela, Federico Lenguado ezagutzen dut, eta egia esan, ez da fidagarria, liburu bat irakurri ondoren profesio honetan sartzen den horietarikoa da. Garbi dagoena zera da, bizibide hau jende pribilegiatuok bakarrik har dezakegula, eta ez pentsatu liburu bat irakurtzearen profesio honetan sar daitekeenik. Federico Lenguado iruzurti, gezurtero eta fartsante hutsa dela esan daiteke.

== 66 ==  
**Ez diot arlo askotan oso etorkizun ona ikusten Arrasateri"**




 Hainbat urtetan Santamasetan lehenego saria irabazi duen Arangureneko Modesta erretiratu egin zaigu eta aurtengo Santamasetan bere ohizko postuan Bidezoroko Kontxita zegoen.





 Donato Larretxeak erraztasun osoz irabazi zuen Santamasetako aizkolarien arteko neurketa, sasoi ederrean dagoela erakutsiz. Hori bai, berak beste meritu erakusleak izan zuen, ezpal zati galantak kentzen zizkion eta. Arraroa gizontxo hori oraindik bi eskuen jabe izatea.



 Txapel handia buru txikiarentzat, abarkak ere handiegiak edo beraz traba hanketan, eta horrelakoetan ze arraio, kendu eta kitto! Izan ere, baserritarra dena txiki-txikitatik izaten da.



 Lege zaharrean, kalez kale kantuan ibili ziren koplariak Santamas Egunean. Bertsolariak: J. Iñaki Izarzelaiia eta Aitor Sarasua; kantariak: *Goikobalukoak*; musikariak: Arrasateko trikitixa eskolakoak; eta dantzariak: *Lore Gazteak* taldekoak. Jende gehiegi gauza onerako.



Santamasetako Ageda txerriak aspertuta pasa omen zuen Santamas Eguna. Itxurak hori adierazten badu ere, txori txiki batek esanda, badakigu, ardoa eman ziotela, eta guztiz mozkortuta pasa zuela eguna; horregatik dauka, duen itxura.



Hauek bai jartzen direla bapo. Gazta-lehiaketa dela eta, behar beste jan eta edaririk ez dute falta izaten. Bere lana ondo betetzen duten? Auskalo! Hor garbi dagoena, Insalusak zabaldu barik daudela eta ardoa erdi-beteta erdi-hustuta. A! Eta gero, gainera, aurtan ez dela aparteko gaztarik izan esateko ausardia dute.



Atzetik aurrera bat eta bi, salto. Atzetik aurrera bat eta bi, salto. Atzetik aurrera bat eta bi, salto. Atzetik aurrera bat eta bi, salto, eta buelta. Argazkikoak ere, horrelaxe hasi ziren.



Oiloak erakusgai! Nahiz eta erakusteko modukoak ez izan, hauek nahiko zatarrak bait dira; izan ere, igartzen zaie kaiola txikietan egoten diren horietakoak direla, lepoa lumatuta bait dute.




## OINETAKOAK Aukera aparta


Biteri, 1 ARRASATE Tfnoa: 79 66 53



Hor duzue ARKO, Arrasate Komunikabideetako taldea, iristeko dagoen etorkizunari begira. Duda barik, erronka handia da, eta ondorioz normala da min gehien ematen dituzten kolpeak ez jasotzeko babestea. Ondorioak, bakoitzaren kontu.



Pedro Mari Ruiz de Azua gailurrera iristekotan dabil. Hori dela eta, Frantziskotarren kalistroetan eskalada egiten harrrapatu genuen. Argazkian sokarik ez dauka, baina gorago igo behar izanez gero, seguruen eramango luke. Ez erortzeko, noski.



Jose Mari Loiti, zeharo lanpetuta dabil lantegiko eta Udaleko betebeharren ondorioz, baita Alkatetzaren inguruan sortu diren zurrumurruekin ere. Urduritasuna baretzeko, zer hobe kolpeka aritzea baino? Horretarako, Galan-ekin entrenatzen hasi da eta badirudi ematen zein hartzen ona dela.

## Hurrengo partidua



Joan den astean bost eta zero irabazi ondoren, Mondra taldeko entrenatzailea harro samar atera zen, bere mutilek egiten dakitena erakutsi zutela eta abar adieraziz. Hitz batean esateko, ez zen praktetan kabitzen. Mundu honetan umiltasuna behar beharrezkoa denez, aurrerantzean ez diogu jaramon handirik egingo, eta gainera praka berriak erosi beharko dizkiogu, lehen zituenak txiki gelditu zaizkio eta.

Futbol-entrenatzaileen etxeetan ez dute seguruen bake handirik izango, arropari dago-kionez behintzat. Imajina izugarritzko garaipena lortzen dutela eta aste osoan praktetan sartu ezinik: nonbaitetik nasaitu egin behar, galtzontzilotan kalera irteteko asmorik ez badu behintzat; galtzen dutenean, ordea, txiki-txiki gelditzen dira, ximurtuta, arropa zintzilik jartzen den pertxaren itxuran, dobladilloak eta plantxa ordutik ordura erabili beharrean.

Arropena alde batera, Mondrak ez zuen batere ondo jokatu joan den asteko partiduan, nahiz eta bost gol lortu. Galdakao-tarren taldea aspaldian Atxabalpetik pasatu den txarrena izan da, askogatik gainera; gailzki esanda, txapuzero koadrila bat. Eskerrak horri, bestela ezinezkoa da izagirren mutilek bost gol lortzea.

Hurrengo partidua? Hori datorren urteko kontua da, beraz aurtengoz lelokeriak esateari utzi egingo diogu.

**ERTZ**

**LURRINDEGIA  
OPARIETAKO ARTIKULOAK**

Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70



## TOMAS ITURBE

### Tximista baino azkarragoa

# PODIUMA



**T**omas Iturbe Udalako apaiza da urte askotan. Arrasatearrok, auskalo noiztik, Udalako apaiza motorrean, sotanaz eta legeak agintzen duen bezala kaskoa jantzita ikustera ohitu gara. Arrasatetik Udalara darman bidea, aldapatsua izateaz gain, bihurgunez josita dago; bihurgune arriskutsuez, egia esan. Bide horretan motorra ondo gidatzea ez da batere erraza, baina Tomas Iturbek, hainbeste urteren buruan, aparteko trebetasuna dauka. Dohain horren berri, bertakoek ezezik, motor munduko espezialistek ere izan dute eta; datorren urteko munduko motor-txapelketarako fitxatu dute. "Egun batean Udalaik Arrasaterantz nentorrela, auzoan bazkaltzen egon zen japoniar bat, Fagorrera etorritako bat, nire estiloan fitxatu zen. Dirudienez, asko gustatu zitzaion bihurguneak hartzeko egiten dudan maniobra, eta hurrengo egunetan Udalarako bide-ertzeko pinudietan ezkatututa ni obserbatzen egon zen. Azkenean, Japoniara itzuli aurretik nigana zuzendu zen, datorren urteko munduko motorren txapelketan parte har nezan. Proposamen ona egin zidan eta nik onartu egin nuen".

Txapelketari datorren urtera arte hasierarik emango ez bazaito ere, dagoeneko Tomas Iturbek pare bat aldiz

Japoniarako bidaia egin behar izan du. "Neurrirako motorra egin behar didate eta metroa hartuta han ibili zaizkit japoniar txiki pilo bat inguruan, gau eta egun neurketak egiten eta gero neurtutakoa ordenadoreetan sartzen. Sotanarekin arazoak izan ditut eta horregatik hainbeste denbora neurketak egiten; abiada handia hartzen nuen haizeak sotana tubo de eskapera bidaltzen zidan; ondorioz, motorra ito egiten zitzaidan. Tira-bira batzuk izan ditut, aerodinamikaren aitzakiaz, japoniarrek nik sotana kentzea nahi zuten eta, baita kaskoa ere, baina horretan ez diet amore eman nahi izan".

Zirkuituen mundu honetan berria eta esperientziarik gabekoa bada ere, Tomas Iturbek esperantza handia du laster hasiko den denboraldiaren aurrean. "Ez dinu izango, bai! Motorrean berriz Jaungoikoa eta biok joaten gara eta".

#### ◆ Txalapartarientzat ikastaroa

Herrian Txalaparta jotzen dutenak geroz eta gehiago direnez, Musakolako kiroldegian txalapartarientzat egokitu-tako gimnasi ikastaroa antolatu da. Azken aldean egiaztatu denez, txalapartariei gehiegi luzatzen omen zaizkie besoak. Hori gerta ez dadin antolatu dira aipatutako ikastaroak. Aurrera begira, txikiteroentzat ere antola daiteke beste ikastaroren bat; azalpen beharrik ez dago.

#### ◆ Igerilariak bikain

Izugarrizko emaitza onak lortu zizuten Arrasateko igerilariak joan den astean Bergarako piszina egindako probetan. Sei proba eta itotakorik ez, paregabea duda barik. Postuak honako hauek: Nekane Betihotz, hasi ere ez, hanka sartu eta ura hotzegia zegoela iruditu zitzaion eta; Mikel Triphandi, dijestioa egiteko astirik ez zion eman, ondorioz ez zen arropaz aldatu eta txintxo-txintxo egon zen probak ikusten ogitartekoa jaten zuen bitartean; Jon Azkarraga, bainu-jantzia ahaztu zuen eta lotsa eman zion bilutsik parte hartzea; Zorion Prestu, ondo hasi zen baina flotadorea pintxatu zitzaionean akabo, sokorristek atera zuten; Josune Kiskilla, moskeatu egin zen eta entrenatzailerik pikutara bidali ondoren autobusez bueltatu zen etxera; Ekin Gogorza, azkenengo izan zen, baina amaitzea lortu zuen.

#### ◆ Ahari-jokoa

Ekologistei adarra jotzeko, ehiztari talde batek ahari-jokoa antolatu du. Hegaztien ongietorrian moduan, hemen ere ez da aipatzen joko hori non eta noiz den. Ekologistarik agertzen bada, biak burugogorrek direnez, jokoa ehiztari eta ekologisten artean izango da. Sarretan ez dute diru asko aterako.

K  
L  
A  
S




## GAZTE-MODA

Iturriotz, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 77 02 76

K  
L  
A  
S

# Sarasua txapel barik

**J**on Sarasua, bertsolari aretxabaletarra, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan garaipenetik oso gertu ibili zen. Donostiako belodromoan bildutakoez gain, bertsozale ugari entzun ahal izan zituen, gartzelako gaia arte, Aretxabaletako bertsolari gazteak botatako bertso dotoreak. Gartzelako gaian ere, Sarasuak bota zituen lehen bi bertsoak, ordura arte Anoetan entzundako hoberenak izan ziren. Bazirudien aurtengo Gipuzkoako bertsolarien artean jokoan jarri den txapela Aretxabaletara etorriko zela, baina bapatean, Jon Sarasuak hirugarren bertsoari beste neurri eta doinu batekin ekin zion. Akabo Deba Garaiko bertsozaleen esperantza guztiak, txapelik ez gure artera.



Txapelketa bukatu eta gero, Jon Sarasuak argi eta garbi esan zuen egindakoa kontzientzia osoz egin zuela, txapelketen bere aurkako jarrera adierazteko. Arrasate Pressi aitortu zionez, ordea, egia bestelakoa da. *"Lapsus bat izan dut. Oso*

*kontzentraturik nengoen eta gainera banekien zer eta nola esan. Barruko indarren batek behartu nau egindakoa egitera, konturatu orduko aulkian eserita nengoen eta. Euskitzek esango lukeen bezala, hankasartze galant-aparta".*

● **SS-77ren disko berria**  
SS-77 rock taldeak, disko berria aterako du. SS-77koek ezin izango dute diskoa beraiek nahiko luke ten bezala grabatu, diskoetxeak baldintzaren batzuk jarri dizkie eta; aipagarrienak, kitarra elektrikoaren ordez mandolinak erabiltzea, eta bateriaren ordez panderoa. SS-77 zaleek ez dute gozamenerako aukerarik, aurrekontu txikiaren ondorioz, diskoari ez diote erdiko zulorik egin eta.

● **Dirulaguntzak**  
Arrasateko Udalak kultur munduan lan egiten dutenentzat dirulaguntzahan-diak ditu. Ezarritako laguntzak honako hauek dira:

- Mihiarekin sudur-punta ikutzen duenarentzat 100.000 PTA, turismoa erakartzeko lagungarria delako.

- Behatza sudurrean igarri gabe sartzen duenari 150.000 PTAko dirulaguntza emango zaio, diskrezioaren izenean noski.

Aipatutako laguntzak jasotzeko, ohizko inprimakiak bete beharko dira. Beraz, idazten jakitea, beharrezkoa ez, baina kontuan hartuko da.

**BIONA**

Zurgin Kantoi, 2      Tfnoa: 79 20 04      ARRASATE

**PUB HAIZEA**

arrasate

**Basabe  
jatetxea**

**Menu eta afariak  
Boda eta banketeak**

Industrialdea

**ARETXABALETA**


Tfnoak: 79 91 84

77 07 94

## Jon Garai

# Funtzionari izatetik enpresa-gizon izatera

Jon Garai askotan atera da Arrasate Press-eko orrialde hauetan. Izan ere, arrasatear gazte honen iharduera sorkuntzara bideratu da betidanik. Gauzak horrela, bere bizitzari norabide berria eman dio, Udaletxeko lan eroso utzi eta kultur munduarekin zer ikusia duen enpresa sortu du eta.



— Proiektu hori aurrera aterako delakoan?

— Noski, bestela ez nuen Udaletxeko lana utziko. Bizimodu lasaia gustatuz gero, nire ustez ez dago funtzionari lana bezalakorik: aire giro-tua medio, neguan epel epelean, udan berriz freskotasun ederrean eta orokorrean izerdi gutxiko lanean jarduten duzu eta. Ez da bizimodu txarra, ez.

— Orduan, zergatik utzi duzu?

— Politikoen erruz. Begira, nik neuk pertsonalki beti izan dut herriko kultur giroari

bizitasuna emateko gogo bizia orain artean izan dudan lanpostua ez nuen kasualitatez edo beste ezer ez nuelako aukeratu, bokazioz baizik. Kultur dinamizatzaile izeneko lanpostuan hasi nintzeanean, uste nuen izango nuela aukerarik kultura berpizteko bidean aurrerapausuak emateko, baina, hainbat oztopo medio, ezinezkoa izan zait.

— Zein oztopo?

— Lehen ere aipatu dut,

politikoak. Garbi hitz egingo dizut. Politikoei berdin zaie astero zine-emanaldiak izatea, ikastaro edo hitzaldiak antolatzea, edota jendeak, tabernaz taberna ibiltzeaz gain, beste denborapasarik ez izatea. Politikoei, zubi bat, kiroldegi bat edota errepidearen bat inauguratzen denean argazkian agertzea besterik ez zaie ardura.

— Beraz, erreta?

— Erreta? Beno, zigarro

batzuk erretzen ditut, baina hori ez da kontua. Udala hor geldituko da, baina nik aurrera egingo dut. Udalarri gauza bakar bat eskertu behar diot, Euskal Herriko Estatu-tuko eta atzerriko kultur munduko jende gehiena ezagutzeko aukera eman didala. Askotan, kooperatiben roiloa medio, bertakoa konpondu barik, Arrasatek kanpora begira bizi den herria dirudi.

— Zein izango da zure enpresaren lehen eginkizuna?

— Ikastaro bat prestatu dut, "Nola izan politikaria... baina ona, e!" izenburua dararamana.

Dagoeneko matrikula-kopurua bete da, bailarako zinegotzi, zinegotzi-ohi, alkate eta alkate-ohiek, eta inoiz udal-hauteskundeetan parte hartu duten guztiek eman bait dute izena. Kiroldegiren bat egin behar ko dut guzti horiek sartzeko, beraz orain ere politikariei subentzioa eskatu beharko diet.

olioak, **Artea**  
lientzoak,  
akwarelak eta  
eskulanak  
Ferrerias, 25 Tfnoa: 77 10 95

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

**ENARA**  
OSAGIRRIAK  
Maalako Errabala, 21  
Tfnoa: 79 62 32  
20500 Arrasate

**Ume-mod**

Ferrerias kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86



**Urte berri on!**


# Seme-alaben zorion betea

**D**enok eskuzabal-tasun handiz, pozik eta merke eman ohi ditugun gauza gutxi horietako bat, aholkuak edo kontseiluak dira. Beraz, hona hemen zuen seme-alabak ongi hazteko batzuk:

1/ Gurasook ez denbora gehiegi galdu seme-alabekin, gaizki ohitzen dira eta. Bestela ere, nahikoa lan egin zenuten mundura ekartzen. Zuek zeuen lana, negozioa, lagunak, etab. zaindu; umeei konpon dezatela beren bizi-modua.

2/ Denborarik eman ezin badiezue ere (ez zaudetelako broma horietarako), eman behintzat behar dituzten eta ez dituzten gauza guztiak. Bete etxeak katxarroz, tresnaz, aparatuz eta tramankuluz. Izan ditzatela beste inork baino gehiago eta hobeak, gurasoez harro egon daitezten inoren aurrean.

3/ Ez da bekatua zeuen frustrazio batzuk seme-alaben gain botatzea. Nagusiak



edo ugazabak puteatu zaituztelako kabreatuta zaudetela? Ba, etxera iristean, ordainerazi pixkatxo bat seme-alabei: horrela ikasiko dute zer den bizimodua, eta hobeto prestatuko dira etorkizunerako!

(Oharra: Kolpeak banatzen badituzue, ez dezatela markarik utzi, eta ez izan as-

toegiak, entzun?)

4/ Zilegi da zeuen frustrazio sakonagoak ere seme-alaben gain proiektatzea. Zeuek izan nahi zenuten baina lortu ez duzuen guztia, beraiei exijitu, batez ere mutilak badira —neskak, gutxiagorekin ere, pase!—. Honetarako, gogor hartu ikasketetan, zeuen amets

guztiak —injineru, arkitekto edo futbolista ospetsu izatea— behingoz bete daitezten.

Eskolatik irten ondoren, bidali ingelesa, frantsesa eta alemana ikastera; gero, solfeora. Etxera etortzean, egin dezatela informatika. Nekatuta badaude, ez barkatu, ikus dezatela telebista ugari, horrela, zuek bakean uzteaz gain, etxea ez dute zikindu eta hondatuko, eta *the american way of life* hori ongi barneratuko dute.

5/ Exijitu onenak izatea gauza guztietan: eskolan, azterketetan, kiroleetan, etab. Beste inor baino hobeak izan behar dute, arrakastatsuen eta guapoena. Ez etsi! Bidean pott egin eta lehertzen badira, zer egingo diogu ba? Horrelaxe da bizitza; noizean behin gertatzen dira istripuak. Baina normalean ondo ezkondu eta etxe eder batean biziko dira zorionsu, bizitzaren amaiera arte. Zein pozgarria!

ZIPLI-ZAPLA TALDEA

**AUTO  
ESKOLA**

# ARRASATE

## 7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89

# Berango



## Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Zer Plan duzu  
zeure familiarentzat?




ASEGURU  
OROKORRE,  
MUTUA

## FIATC AURRIKUSPEN -PLANA MULTIPOLIZA FAMILIARRA

Orain, poliza bakar batean, eta hilean  
8.750 PTA bakarrik ordainduz, estaldura  
guzti hauek izan ditzakezu:

<b>BIZIA</b>	5.000.000 heriotzagatik 5.000.000 elbarritasunagatik	850 PTA hileko
<b>JUBILAZIOA</b>	65 urte. Errenta unitarioa 75.000 PTA hileko	3.887 PTA hileko
<b>GAIXOTASUN edo ISTRIPUAGATIKO SOLDATA</b>	2.000 PTA eguneko	1.478 PTA hileko
<b>ISTRIPUA (Osasun- Asistentzia barne)</b>	5.000.000 heriotzagatik 5.000.000 elbarritasunagatik	700 PTA hileko
<b>OSPITALIZAZIOA eta KIRURGIA</b>	UVI barne	1.565 PTA hileko

- Kopuru hauek 35 urteko pertsonarentzako balio dute. Kapital-kopuruak ere orientagarriak dira.
- **KONTRATAZIO-MALGUTASUNA:** Komeni zaizkizun estaldurak bakarrik kontratatzeko aukera duzu.
- Asko aurreztuko duzu hainbat estaldura poliza bakar batean kontratatuz.
- **TRAMITE-ERRAZTASUNAK** erakunde bakar batekin lan eginez.
- Gainera **DESGRABAZIO FISKALAK** eta **HILEROKO ORDAINKETAK**.



**MIKEL ELORTZA ETXEBARRIA**  
**Aseguru-artekaria**

Zarugalde, 44 etxabea ezkerre.  
ARRASATE Tfnoa: 77 13 09

**M**  
**ARENAZA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

**Osorik  
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

**HIRE**

Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikulua  
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**Monte  
taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

**VE ECUADOR**

Kontzezifto, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**Begoña  
lurrindegia**

Drogeria / Jostailuak  
Opariak  
Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73

**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**zeppelin**



Loramendi, 3 etxabea  
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

**gili gili**



Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57

**Memesa  
79 42 22**

**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

**IZAGIRRE  
barategia**

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

Gabriel Elorriaga Dka.  
**Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua**

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

**HUETO Doktorea**

**Eztarria, sudurra,  
belarriak**

Txanda eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00  
Olarte kalea, 43 Arrasate

**K**abia **altzariak**

Gipuzkoa Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduktzioa  
Offseta

Ferrerias, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

# Zorionak! Urte berri on!



## Chapime tailerrak

Araba Etorb. z/g.  
Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22.  
ARRASATE

Paris-Dakar '91 Rally-ko txapelduna  
Faraolen Rally '91-ko txapelduna

**CITROËN ZX.**  
Txapeldun jaioa



**E T X E K O G O Z O K I A K**

Tartak, pastel txikiak, pastelak,  
pastel bereziak, gurinezko pastak,  
opiltxoak, ezkontza-tartak.

**ENKARGUAK: ☎ 77 00 71**

Zarugalde, 54 ARRASATE





RAGARKI LABURTZOAK, BAINA MAJUAK

- **Politiko zintzo eta egizalea behar da.** Hain espezie bakana denez, ongi ordainduko da. Deitu 77 88 99 telefonora. Sisebuto Errodriguez.
- **Lotsa (ez lotsariak) galdu nuen Zerkaosteta kalean.** Lehen gutxi nuen eta orain batere gabe ez geratzeko, dei egin, mesedez, 11 22 33 telefonora. Torkuato Etxezarraga.
- **85 urteko aguretxo bat naiz.** Ezin naiz etxetik irten eta ikusmena ere ahul samarra dut; ez aspertzeko, neska motz bat nahiko nuke niri liburuak irakurtzeko, tarteka Biblia eta tarteka Play-Boy. Deitu 12 12 12ra. Patxiko
- **Semetxo ipurterre eta petral bat galdu zitzaigun Zarugalden.** Maite dugu, baina "urrutira", UNEDeko ikasketak bezala. Aurkitu duenak, har beza beretzat. Esther eta Julen.
- **Aramaiotik nentorrela, gurpilaren bizikleta bat galdu zitzaidan.** Aurkitu duenak, dei beza, s'il vous plait, 55 66 77 telefonora. Perutxo.
- **Apaizgai eta mojangai izateko neska mutil jator eta sanoak behar dira.** Gaur egun Kriston moralak behar da horretarako, baina ongi ordainduko zaie (beste munduan!). Dei egin bizkor 01 23 45 telefonora. Luzdivino Apezetxea.
- **Senarra nahi dut guapoa, jatorra, langilea, diruduna eta maitagarria.** Asko eskatzea izango da agian, baina tira, aspaldi esana da "eskatu eta emango zaizue". Erdiko Kaleko Enkarna.
- **Beste norbaiten senarra aurkitu dut ohean.** Burusoila eta tripandia da; ez zait interesatzen, eta jabea etor dadila beraren bila azkar. Goikoetxeko Mertxe.
- **Wanted one cow-boy.** Izan dadila gazte eta indartsua. Baserriko lanak egiten laguntzeko, eta Peru gurea Londresera joaten denean, elkarrekin dantza egiteko. Beheko baserriko Mikela.
- **Wanted one cow (without boy).** Errape onekoa, esne ugari eman eta gutxi jango duena. Ondo pentsatuta, mutikotxo bat ere ez litzaidake gaizki etorriko behia zaintzeko. Goragoko baserriko Errufina.
- **Guraso berri batzuk nahiko genituzke, noizbait kasu pixka bat egingo digutenak.** Deitu lehenbailehen 66 66 66 telefonora (edo bestela 99 99 99ra). Oier eta Aitziber.
- **Kazetari bat behar da Arrasate Press-en** espainol edo gaztelaniaz ganoraz egingo duena. Deitu bizkor 77 05 65 telefonora; presazkoa da.
- **80 urteko amonaxo bat naiz.** Neguan hankak eta ohea berotzeko gazte mardul bat nahi nuke. Ez zaizuela ondo iruditzen? Ez izan txotxoloak! Dabidi ez al zion ba neska gazte batek ohea berotzen? Eta hura jakintsua zen gero! Iturbi-deko Nikasia.
- **Igande arratsaldetan musean eta musuka egiteko laguna nahi dut.** Ahal bada, neska hobe; baina besterik ezean... Josetxo Kasanoba.
- **Arrasate Press eta Arrasate Telebistari** laguntzeko herriko banketxe batek emandako dirulaguntza ikaragarria galdu zaigu. Hain altxor baliotsua aurkitu duenak, abisa diezagula, please!!!
- **Sindikalistak behar dira,** burokrazia ahaztu eta, datorren negu gorriaren aurrean, langileak defendituko dituztenak. Ausardia hori dutenek dei bezate edozein lantegitara.
- **Espazio honetarako ez geneukan ezer, baina nolabait bete egin behar, eta horretan ari gara.** Ganora-falta iruditzen zaizuela? Ba, aizue, makina bat aldiz egiten ditugu honelakoak eta ez zarete asko kexatzen. Beraz, gaur gutxiago. Ale, agur, eta datorren urtera arte. Musutxoak eta besarkadak denoi.

**BENGOA**

**USAINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK**

Zerkaosteta, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 28 85

# Zer nahiago?

## Koldo Rodriguez (San Viator-ko irakaslea)



- **Kamara aurrean ala irakasle-lanetan?** Kamara aurrean, jendearen aurrera ir-tetea gustatzen zait eta.
- **Pelikulak, barre egiteko edo negar egitekoak?** Berdin zait batzuk edo besteak, negar egiteko ez dut asko behar izaten.
- **Hitzegin ala entzun?** Entzun; edozei-nek kóntatzen dizkidan gauzak entzu-teko prest egoten naiz, begira zelako belarriak.
- **Videos de primera ala Ene ba bi-deoak?** Videos de primera, noski, erdaraz da eta hobeto ulertzen da.
- **Bernardo Atxaga ala Marcial L. Estefania?** Atxaga *plastabat* iruditzen zait, nahiago dut Estefaniaren arintasuna.
- **Xabier Zubizarreta ala Nekane Iglesias?** Ez bata eta ez bestea, alkaterik hobe-rena parrokoa.
- **ATB ala Arrasate Press?** Biak ere tostoi hutsak iruditzen zaizkit.
- **Zuzenean ala aurrez grabatuta?** Zuzenean, kamara aurrean onak garenok arris-kuak izugarri motibatzen gaitu.
- **Admiradoreak, gizonezkoak ala emakumezkoak?** Berdin zait, admiratua senti-tzea gustatzen zait.
- **Gasteiz ala Arrasate?** Gasteiz, hango heavy giroa asko gustatzen zaidalako.
- **Kotxea diesela ala gasolina?** Bietatik daukat, eta berdin zait.
- **Haurrak, disziplinaz ala maitasunez hezi?** Gogor, bestela burutik behera kaka egiten dizute.
- **Un, dos, tres ala El precio justo?** Zelako galdera nekezal! Biak izugarri gustatzen zaizkit.
- **Zahartzaroan, monastegira ala zaharren egoitzara?** Pisu batera, jende gaz-tearekin.
- **Musika jo ala abestu?** Ez bata eta ez bestea. Belarri galantak bai, baina oso belarri txarra dut.


# Bertsotan

## Bertso berriak

Doinu gabean  
neurri librean  
eta errima barik  
bertsoak jartzen  
naiz ~~hasi~~,  
ezer esatekorik ez daukat  
beraz, hemen ezingo duzue ezer ikasi.

Esandakoa esan eta oraindik irakurtzen?  
joder! dagoeneko hasi naiz aspertzen,  
lehen ere esan dizuet  
nola lan honetan  
batare trebea ez naizen  
baina tira  
agindutakoa betetzen nago  
eta halaxe egingo dut akabo.



A. PEÑAGITANO



etxean  
nahi  
ditugu



GILTZAK • LLAVES • KEYS • CLES • CHIAVI • SCHLUSSEL



**JMA** *JMA*


**ALEJANDRO ALTUNA S. A.**

Bidekurtzeta, 3. Apdo. 70  
20500 MONDRAGON (Guipúzcoa)Spain  
Tfnos.: (943) 79 30 00 - 79 33 32  
Telefax (943) 79 72 43. Telex 38838 JMA E



## Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharizan berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



# kutxa

gipuzkoa  
donostia kutxa  
caja gipuzkoa  
san sebastián



**F**

irmes, ar!  
1954ean  
Melillan  
zeuden gudari  
(barka,  
soldadu!)  
Julio Mara-  
ñon Erregula-  
retan eta Jose

Luis Mendiartx (PSOeko zinegotzi-ohia) dinbi eta danba Artillerian. Zein den eskuinekoa eta zein ezkerrekoa, ez dago esan beharrik, argi dago eta. Soldaduzkaren kontra hainbeste kontu entzuten den garaiotan, komeni da gogoratzea gauzak ez direla beti orain bezala izan. Argazkian garbi ikusten denez, lehen jendea pozik joaten zen han behera, soldadutzak abantaila asko zituen eta: 1) Gazteak gizon egiten ziren. 2) Konkista heroikoak burutzen zituzten (femeninoak, batez ere). 3) Hango arrantxoaz gorputz nahiz arimaz desarroilatzen ziren. 4) Alfabetatu ere egiten ziren eta kasu pribilejiatu batzuetan gero *res publica*-ra eta herritarron buruzagitzara dedikatzeko gaitasuna lortzen zuten. 5) Eta azkenik, bularrak eta zangoarteak abertzaletasunez (barka, patriotismoz!) beterik etxeratzen ziren.

Gaur egun jende askorentzat soldadutza traumatikoa suertatzen omen da, baina lehen ez zen gehientzat hain esperientzia trajiko eta negargarria izaten. Halere, baliteke norbaitek pentsatzea, Erromako Elizaren sakramentu batzuek bezalaxe, "que la mili imprime carácter".

## Mendi taberna

Mendi da zure etxea


Maalako Errabala, 4 ARRASATE Tfnoa: 79 20 54

# horoskopoa



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Analogiaz ahariaren izakerarekin omen zatozte bat, eta hauxe da definiziorik egokiena: adar oker eta zimurrak dituen ugaztun hausnartzailea. Topeka hasi barik, e?



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Egunok garestitsu atera eta zu zeu haragitsu bihur zintezke haragijale amorratu hori. Zeren ondorio ote da jateko amorrua? Azeleratuta zabilzta eta danbatakoren bat hartzea suerta liteke.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Gezi asko disparatu zaizkizu amodio-kontuetan eta ajedrezean bezala ibili beharko duzu. Horrela ibili nahi ezean, ospa ingurutik, denen gogoia egitea oso neketsua da eta.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Zuek analogiaz zezenarekin omen zatozte bat: buruhandidun ugaztun hausnartzailea, larru sendokoa gainera. Adarrak erasorako omen dira eta ondo-ondo egin behar zuei.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Polita eta delikatua izan beharko zuentzat erosi beharreko oparia. Aingeru-eskurik ba ote da salgai egin behar hau tokatzen zaiona jakinean jartzeko? Zodiakoko Inmaculate Fools-ak.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Daukanak daukalako eta ez daukanak baleuka. Ez diozu toperik ikusten eta bazeneukanarekin jarraitzen duzu. Badakizu egunotan Olentzerori eskatzea libre dela... ematea ere bai.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Aurtengo komedia bukatu da eta hasia izango zara datorrenerako beste bat prestatzen. Ez omen dago bigarren zati onik eta erregistro berriei heldu beharko betiko leloa ez ematekotan.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Ipini txapela buruan eta ibili munduan. Haizeak ez omen dauka pisurik eta zuek igarri ere ez. Orain bai. Lepotik behera igarriko duzue, bai, zenbat diren hamar gehi lau.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Zu zara amurraina, zu. Argia zara, baina besteak ere ez tontoak. Aztiarena egiten ariko zara zeure abilezia erakutsi nahian, baina gogoan hartu amurrainak begi bi dituela eta sei eskailuk hamabi.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Dekapodoen artean oskoldunak garestitu egiten omen dira garai honetan eta makaleko prezioa jarri diozu zerorrek ere zeure buruari. Beharpenetan izango al da zurekin egotetik?



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Ondo disimulatzen saiatu bazara ere, bistan geratuko da zure izaera sexologikoa. Ez zuk esanda, oharkabean egingo dituzun mugimenduengatik baizik. Erreparatu zeure gorputzean.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

"In vino veritas", egia ardotan. Mozkoti guztiek egia esaten dutelako, hitzaldiak edo ematen hasi beharko zenuke. Horrela bada, bele beharko duzu upategia, bai. Bueltan ere etorriko zara.




**ARANBURU  
COTEMAR**  
Garraio-agentzia



Zaldizpe, 3 ARRASATE Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

## BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, krocketak eta piper-kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

## IBARRA Garajea S.A.



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64



**HAURTXOA**  
Arrasate Pasealekua 4,  
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90



## Serie erotikoak ATBn

Urtariletik aurrera, ATBk pelikula erotikoak eskainiko ditu asteazken gauetan. Pelikula hauek, bertsiu orijinalen eskainiko dira, euskaraz azpititulatuak. Tituluaren artean: *Enmanuelle*, *Hembras salvajes en Ibiza*, *Bragas Calientes* eta antzeko filmak izango dira ikusgai.

Badakizu, beraz, urtariletik aurrera filme erotikoak ATBn.

## Telebegi

Telebistako, filmeetako, anuntzioetako erromantzeak perfektuak dira erabat eta perfektuak dirén heinean konparazioz, mingarriak.

Sinopsis erreal bat: bilutsik geunden biok, zertxobait urduri ere bai, nahiz eta gelako argia itzalia zegoen. Ezpainaz ditiburua eskuaz sabelpea xamurki igurtzen zion bitartean belarria ukitu nion mihiarekin. Ez zuen berak inolako aiene sentsualik bota. Harritu egin nintzen, nik ordurarte pelikuletatik-eta jasotako erreferentzien arabera momentu horretan orgasmoak berez etortzen zirelako. Nire errua ote? Maitale aldrebesaren jakituria eza? Berdin zitzaidan; filmek ahaztu eta zakarki patotzen eta ukitzen hasi nintzaion. Kilikatua nengoen erabat, bero-bero eginda, amases-tuka. Derrepentean, kondoa, kondoa jarri behar nuela. Ohetik jaiki, gela izoztua zeharkatu, ilunpean kondoi-kaxa miserablea aurkitu eta ohera itzuli nintzenerako itoak zeuden ene sexu-grinak. Akabo pasio pelikuleroa! Ez, ni ez nintzen inoiz filme edo kolonia anuntzio baten protagonista izango. Errealitatearen frustrazioa. Kristo! Nik Baron Dandiko maromo gihartsua izan nahiko nuke, norbaiti musu ematean honen gozameneko aieneak entzuteko nire belarrietan; anuntzio, pelikula eta telebista serietan gertatzen den bezala. Telebista itzali beharko dut, fikzioa ene bizitzan sartu eta frustrazioek inpotente bihurtu aurretik.

ANDONI DE ANDUEZA Y RODRIGUEZ

### Dragoi-Bola

(Hasiera-hasieratik)

Egunero ordubeteko saioa

**Egunero 8etan**

### Sukaldaritza

Carlos Argiñanoren eskutik

**Egunero 9.15etan**

### Zine erotikoak

"Kuleroak pil-pilean"

**Asteazkenean 12etan**

## Argiñano ATBra

Karlos Argiñano sukaldari ezagunak, sukaldaritzari buruzko saio bat aurkeztuko du egunero ATBn. Programa hau, Pedro Vidaurreta, Karlos Argiñanoren ordezkariaren eta ATBko zuzendaritzaren artean lortutako akordioaren ondorio da. Negoziaketak duela zenbait hilabete hasi ziren, eta behin-betirako akordioa herenegun sinatu zen. Karlos Argiñanok urtean bost milioi kobratuko ditu. Batzuei hainbeste eta beste batzuei hain gutxi!





**APARATUAK**

Puzgarri erraldoiak  
Gargantuak,  
Ohe elastikoak  
Trena  
Zezen mekanikoak

**ANIMAZIOA**

Jolasak  
Aktuazioak  
...

**KIROLAK**

Rokodromoa  
Uretako jolasak  
Kirol-jolasak

**TAILERRAK**

Eskulan ezberdinak  
"Pilez  
funtzionatzen"  
tailerra (Eroski)

**T X I K I L A N D I A**

92eko urtarrilaren 2tik 5era

• ARRASATEKO KIROLDEGIAN •

**Ordutegia:** goizez: **11** etatik **2**etara. Arratsaldez: **4**etatik **8**etara